



ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAYESA



araba álava
foru aldundia diputación foral

PROBAREN ERREGELAMENDUA

1. Ignaziotar Bidea 2024ko urriaren 27an, igandean, egingo da.
2. Naturan kirola sustatzea du helburu jarduera honek, eta parte-hartzaileei Ignaziotar Bidean gozatu daitekeen natura-gunea erakustea.
3. 8 km-ko ibilaldia egingo da, oinez, Uribarri Haranetik Oteora.
4. Ibilaldia Uribarri Haranean hasiko da goizeko 10:00etan.
5. Martxa hau ez da lehiakorra.
6. Ekitaldia bukatutakoan, antolatzaileek autobus-zerbitzua eskainiko dute nahi dutenak Oteotik eta Uribarri Harana hasierako herrira, eramateko. Abiatu aurretik izena emateko epea urriaren 25a arte da.
7. Ibilaldi hau adin nagusiko zale guztientzat da, baita adin txikikoentzat ere (heldu batek lagunduta); federazioaren lizentzia izan ala ez.
8. Gehienez ere 100 pertsonak parte hartuko dute, izena eman duten ordenaren arabera.
9. Parte-hartzaileek konpromisoa hartzen dute martxaren erregelamendua betetzeko, eta haien zein ibilbidean parte hartzen dutenen edo beste erabiltzaileen segurtasuna zaintzeko.
10. Aurrez izena emateko inprimakia eta martxaren erregelamendua eskura izango dira www.arabakomendialdea.eus webgunean.
11. Izena emateko modua:
 - Aurreinskripzioak: 2024ko urriaren 25a arte (online).
 - Ibilaldiaren egunean, irteera-gunea den Uribarri Haraneko frontoian, 09:00etatik aurrera.
12. Prozesua azkartzeko aurretik izena ematea da gure gomendioa, martxaren eguna baino lehen.
13. Antolatzaileek eskubidea dute martxaren ibilbidea aldatzeko, edozein arrazoik horretara behartzen badu.
14. Antolakuntzak ez ditu bere gain hartuko antolamenduarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik parte-hartzaileek izan ditzaketen egintza eta kalteak, ezta haien objektu pertsonalak lapurtu, galdu edo hondatzeagatik izan ditzaketen kalteak ere. Era berean, antolakuntza salbuetsita dago, osasun arrazoiengatik, ibilaldian parte hartzeak ekar dezakeen edozein kaltetik.
15. Parte hartzen dutenek onartzen dute probatik kanpoko hirugarren bati istripu bat eragin dakioketela, istripu horren erantzukizun osoa haien gain hartuz eta antolakuntza istripu horien ondoriozko erantzukizunetik salbuetsiz.
16. Antolakuntzak istripu-asegurua kontratatuko du parte-hartzaileentzat, ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.
17. Datu-pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera, parte hartzen dutenen datu-pertsonalak probaren inskripzioa eta haren ondoriozko gorabeherak kudeatzeko baino ez dira erabiliko. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabiltzeko, helbide elektroniko bat bidali behar da helbide honetara: arabakomendialdea@arabakomendialdea.eus.
18. Irudi-eskubideak. Parte-hartzaile guztiek antolakuntzari eta babesleei baimena ematen diete martxaren testuinguruan grabatutako argazki edo bideo guztiak libreki erabili eta argitaratzeko.
19. Izena emateagatik, parte-hartzaile guztiek araudi hau onartu eta betetzeko konpromisoa hartzen dute, eta uko egiten diete 849/1993 Errege Dekretuaren arabera ekitaldirako kontratatutako istripu- eta erantzukizun-zibileko aseguruek estaltzen ez dituzten kalte-ordainei.